2025eko URTARRILA

# BERMEON ZER?

**URTARRILAK 5**

## Errege Magoen Kabalgata

**URTARRILAK 17**

## “La Odisea“ antzerkia

**URTARRILAK 26**

## BERMEOKO HERRI LASTERKETA



BERMEOKO UDALA

# NEGU MOREA 2025

**URTARRILA**
**OTSAILA**
**MARTXOA**

BIZIRAUPENERAKO BRIKOLAJEA (Tailerra)

PERREO FEMINISTA (Tailerra)

EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK (hitzaldia)

Sexu eta genero aniztasuna HIRIETATIK AT (hitzaldia)

ZIKLOTASUNA EZAGUTZEN (Tailerra)

EMAKUME NAGUSIOK BADUGU ZER ESAN (Tailerra)



BERMEOKO UDALA

**02** **Eguena**
**03** **Barikua**
*San Frantzisko Herri Ikastetxeko karpan*

KIROLA

## PUMP TRACK

Monitore batek dinamizatuko du ekintza.

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**02** **Eguena**
**03** **Barikua**
**04** **Zapatua**
*Areneko kiroldegian*

KIROLA

## SASKIBALOI TXAPELKETA

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**04** **Zapatua**
*Areneko kiroldegiko igerilekuan 16:30etik aurrera*

KIROLA

## UR BATAIOA

Antolatzailea: ***Bermeoko Udala eta Izaro Sub taldea***



**05** **Domeka**
*Artza Frontoian 11:00- 14:30*



KIROLA

## ESKU PILOTA TXAPELKETA

*Antolatzailea:* ***Artza Pilota Elkartea***

*Areneko kiroldegiko igerilekuan 11:00, 12:00 13:00*

KIROLA

## PUZGARRIAK IGERILEKUAN

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***










EKITALDIA

## HIRU ERREGE MAGOEN KABALGATA

**Ibilbidea:** Lamera, Askatasun bidea, Trake, Almika kalea, Ondarreburu, Artieda tar Iñigo, Zubiaur tar Kepa, Esparru, Bizkaiko Jaurerria, Arresi, Ongintza, Irakaskintza, Doniene, Goiko plaza, Nardiz tar Jon, Arresi eta Lamera.
Argazkiak liburutegian: Erregeak heltzen diranetik 20:30ak arte. Liburutegiko atetik sartuko dira argazkiak atara gura dabezanak eta urten frontoi aldeko urtekeratik. Informazino gehiago udalaren webgunean eta sare sozialetan.
**Artza frontoi aurrera helduko dira erregeak itsasotik 18:00etatik aurrera**

*Antolatzaileak:* ***Bermeoko Udala eta BUDEK***
*Laguntzaileak:* ***Herri Babesa, Gurutze Gorria, Ross Dantza eskola, Gaztelugatxe danborrada, KIETB, Izaro Bikers, eta boluntarioak***

**08** **Eguaztena**
*Arrantzaleen Museoan*
*18:00etan*

## BISITA BEREZIA

# BERMEO. PORTU ZAHARRA

Azken bisita berezi honetan, Marcaidaren begiradapean ikusiko doguz “Bermeo. Portu Zaharra” erakusketa, bilketa eta hobekuntza digitalaren norakoak. 1877tik gaur egunera arteko ibilbide bikaina egungo dogu alkarregaz, erakusketari agurra emoteko. Euskera-gaztelania.
Informazino eta erreserbak: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus
Erreserba egin behar da, leku mugatua dago eta.
Prezioa: Dohainik

*Antolatzailea:* ***Arrantzaleen Museoa***




**10** **Barikua**
*Erroxaperen egoitzan*
*19:00etan*

## FILM EMONALDIA

# BRIDGET JONES

*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen Elkartea***

**11** **Zapatua**
*Areneko kiroldegian*

## KIROLA

# ESKUBALOIA

Infantil mutilak: Talape – Escolapios
Infantil neskak: Demiku – Askartsa
Infantil neskak: Gaztelugatxe de Urdaibai – Urdanet H
Infantil neskak: Sollube – Zuazo beltza

**12** **Domeka**
*Areneko kiroldegian*

## KIROLA

# FUTBITO

Biara Bermio A – Betiortziri A



**16** **Eguena**
*San Frantzisko Herri Ikastetxean*
*17:30ean*

## FAMILIA ESKOLA

# “Nerabeen emozioen bidelagun. Zelan zaindu komunikazioa gure seme-alabekin?”

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***



**16** **Eguena**
*Gizarte eta Kultura Etxean*
*19:00etan*

## IRAKURLEEN TXOKOA

# "ETA HANDIK GUTXIRA GAUR", Eider Rodriguez




Eider Rodriguezen "Eta handik gutxira gaur" liburuko hamasei narrazinoak Joseba Sarrionandiaren hitzaurre bategaz datoz: "Ondo bereizi behar dira fantasiak eta mamuak. (...) Eiderrek errealitateak duen mamu partearen kronika egiten du ipuinotan zehar, bere fikzioa ez dabil fantasien bila, baizik eta mamuen bila".
Erakarmen-indar handiko narrazinoak, estilo bikainean idatziak, gerora berretsi dan idazlea erakutsi eban Eider Rodriguezek bere lehen liburuan.

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**17** **Barikua**
*Nestor Basterretxea aretoan*
*20:00etan*



## ANTZERKIA

# "LA ODISEA" KAI ERREA

Kai Errea antzerki-konpainiak bere lehen proiektua aurkeztu dau, "La Odisea"; Alberto Conejerok Homeroren lanaren ganean eginiko bersino bat da, Javier Liñerak egokitua eta zuzendua.
Muntaketa-lanean kontakizun epikoaren teatraltasuna nabarmentzen da. Antzezleek egin eta kontatu egiten dabe, pertsonaia eta narratzaile dira. Zubi bat dago antzezleen lehenaren eta orainaren artean, bai eta desadostasuna, alkarrizketa eta eztabaida be bi errealidade ezbardin horreen artean.
Zuzendaritza: Javier Liñera
Antzezleak: Osvaldo del Valle, Ander Jiménez, Iratxe Azkarategi Domaika, David Pérez-Zamacona, Ale Aparicio, Juan Maté, Gorka Bakedano eta Nerea Arrieta Ibáñez.
Iraupena: 70 minutu. Hizkuntza: gaztelania
Sarrera: 6 € (deskontudunak 4,50 € leihatilan bakarrik)
Salgai urtarrilaren 7tik aurrera, Gizarte eta Kultura Etxean eta bermeo.eus web gunean.

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***
***Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza***

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS



**18** **Zapatua**
*Areneko kiroldegian*

## KIROLA
# ESKUBALOIA

Neska jubenilak: Gibele Urdaibai – Ibaizabal
Infantil neskak: Kurtzio – Elorrio
Infantil neskak: Gaztelugatxe de Urdaibai – Kukullaga Etxebarri

**19** **Domeka**
*Santa Eufemia eleizpean*
*11:30-13:30*

## DENDA SOLIDARIOA
# KIDENDA

*Antolatzailea:* ***Kidenda***

*Gizarte eta Kultura Etxean*
*19:00etan*

## IRAKURLEEN TXOKO FEMINISTA
# "ODOLEKOAK", Antxiñe Mendizabal




1941ean hasi eta oraintsu arte, Iruñeko familia baten historia kontatzen deusku nobelak, hiru belaunalditan zehar, hiru emakumeren bitartez: Matilde, Teresa eta Amaia, nork bere ama bilatzen eta ukatzen daben hiru matrioxka. Unean uneko modak, gertakariak eta bizimoduak pasatzen dira espilu ibiltari baten aurretik: gizartearen tenkak, burrukak eta aldaketak ageri dira kronika bizi honetan. Historia handiaren ganetik, ordea, hainbat jenteren istorioa ezagutuko dogu: Echaluceltarrenak, baina baita euren ahaide, neskame, lagun eta etsaienak be. Baina, batez be, ama-alaba hartu-emonei buruzko kontakizun sakon, gogor eta hunkigarria da esku artean daukazuna: lotura gatx, konplexu eta mingarria, sentimendu kontrajarriz osatua, edari bizi batzuen antzera sartzean.

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**23** **Eguena**
*GuZuBio dendan*
*18:30ean*

## HITZALDIA
# 'ZER DA BIO ETA ZER EZ'

Geure konsumo-ohiturei buruzko berbaldia.
Izena emon behar da: 607 609 580
Doan.
*Antolatzailea:* ***Berbalagun***



**24** **Barikua**
*Nestor Basterretxea aretoan*
*18:00etan*

**MAGIA SAIOA**

## "Harritzearen abilezia", Hodei Magoa

Sarrera: 4 €

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***
***Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza***



SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

*Erroxaperen egoitzan*
*19:00etan*

**EKITALDIA**

## BINGOA

*Antolatzailea:* ***Erroxape Emakumeen Elkartea***



*Goiko Plazan*
*20:00etan*

**MUSIKA**

## KANTA KANTA LORUE

Kalerik kale bazterrak kantuz beteko doguz. Gogoratu beti, kantatzen dauan herria bizirik dagoala!

*Antolatzailea:* ***Kanta kanta lorue***



**25** **Zapatua**
*Areneko kiroldegian*

**KIROLA**

## ESKUBALOIA

Infantil mutilak: Talape – Gaztelueta
Infantil neskak: Txatxarramendi – Uribe Kosta
Infantil neskak: Sollube – Errotabarri

*Sancti Spiritus zaharren egoitzan*
*12:00etan*

**ERAKUSTALDIA**

## Alkartasuna Dantza Taldekoak egoitzan



*Hermanuetako Kapillen*
*21:00etan*

**MUSIKA**

## KONTZERTUAK

Ohil (Euskal Herria), Bayoula Batre (Euskal Herria) eta Vacants (Valentzia).
Sarrera: 8€

*Antolatzailea:* ***Nuntxaku***

**26** **Domeka**
*Lameran*
*11:00etatik aurrera*

**KIROLA**
## BERMEOKO HERRI LASTERKETA




**28** **Martitzena**
*Gizarte eta Kultura Etxean*
*10:00-12:00*

**HITZALDIA**
## "EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK"

Zer egin neike indarkeria jasaten badot eta zer ondorio dagoz pausuren bat emotea erabagiten badot? Eta egoera administratibo irregularrean banago? Zer aukera daukat akordioak, bisita-erregimena edo mantenu-pensinoaren ordainketa betetzen ez badira? Saio honen helburua da galdera horreei eta beste batzuei buruz egon leikeazan zalantzei erantzutea. (euskeraz eta gazteleraz). 18 urtetik gorakoentzat Hizlaria: Ana Garcia Mayayo, abokatua eta Clara Campoamor Elkarteko Bizkaiko ordezkaria.

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***

**30** **Eguena**
*Bermeoko Institutuan*
*17:30ean*

**FAMILIA ESKOLA**
## "Nerabeak eta estresa: familientzako tresnak kudeaketa emozionalean"

*Antolatzailea:* ***Bermeoko Udala***




*GIzarte eta Kultura Etxean*
*18:00etan*

**HITZALDI TAILERRA**
## "SEXU ETA GENERO ANIZTASUNA HIRIETATIK AT" hitzaldi-tailerra

LGTBI+ pertsona gehienak, urietatik kanpo sortu gara. Herrietan sortu, hazi eta bizi(raun) izan gara, herrietako dinamika itxiek urietara erbesteratu gaituen arte, "sexilioa" aukeratu dogun arte. Urietara aniztasunaren bizigarritasunaren, sarearen, komunidadearen bila jo izan da. Han jarri dira gogo eta asmoak, nozonoiz errotzeko asmoz. Tailer irekia, euskeraz. Trebatzailea: Hiruki Larroxa.
Izena emon behar da: berdintasuna@bermeo.eus – 688 638 449 (idatziz)

# Kultur Zerbitzuak

## Bekoportale

Mendoza kardenala kalean
0-5 urte bitarteko ume eta euren gurasoentzat
Astelehenetik barikura: 17:00-19:00

## Ludotekea




Gizarte eta kultura etxean
6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat
Barikuak eta zapatuak: 17:00-20:00
GABONETAKO EGUTEGI BEREZIA:
Urtarrilak 2: itzalekin jolastu
Urtarrilak 3: herriko ekintzetan parte hartu
Urtarrilak 4: merendola
Urtarrilak 10: errezikleta kolage
Urtarrilak 11: jokoak
Urtarrilak 17-18: txotxongilo tailerra
Urtarrilak 24: ezetz asmatu jolasa
Urtarrilak 25: altxorraren bila
Urtarrilak 31: barruko jolasak




## Gazteentzako jarduerak

(12-18 urte bitartekoentzat)
Urtarrilak 11: Puntillismoa teknika artistikoa
Urtarrilak 18: Eskua 3 dimentsiotan
Urtarrilak 23: Sortu zure pertsonaia



# ERROXAPE 2025

## KONTAKIZUN LABURREN SARIETARAKO OINARRIAK

### Euskarazko eta Gaztelaniazko

### Gaia = ANDRAZKOA

1. 18 URTE BAINO GEHIAGOko edozeinek parte hartu ahal izango du, ANDRAZKOAK ZEIN GIZONEZKOAK.
2. Kontakizunak euskeraz nahiz gaztelaniaz aurkeztuko dira.
3. Lanak orrialde bakarrean idatzita egongo dira, hutsune bikoitzean, 1.200 karaktere orriko, gehienez 6 folio eta gutxienez 4. Ipinitako irizpideak betetzen ez dituztenak zuzenean kalean geratuko dira.
4. 3 kopia aurkeztu beharko dira, gutun-azal itxian eta bertan, kontakizunaz gain, beste gutun-bat ere sartuko da, egilearen datuekin.
5. Aurkeztutako lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu bakoak izango dira eta sariketa honetara ezin izango da aurkeztu saritutako lanik.
6. Egile bakoitzaren lan bakarra sarituko da.
7. Kontakizunak otsailaren 14ko arratsaldeko 8ak baino lehen aurkeztuko dira, ondorengo tokiren baten:
   a. Erroxape Elkartea  Erreten Lamera z.g.
   b. Udal liburutegia  Lamera z.g.
   c. Kultur etxea
   d. Bermeoko 115 posta kutxa
8. Epaimahaiko kiderik ezin izango da sariketa honetara aurkeztu.
9. Saritutako lanak ERROXAPE BERMEOKO EMAKUMEEN ELKARTEAren esku geratuko dira. Saririk jaso ez dituztenak aurtengo ekainaren 1etik aurrera hartu ahal izango dira.
10. Epaimahaiak edozein sari hutsik uzteko eskubidea izango du.
11. Epaia martxoaren 8ko ekintzen barruan jakinaraziko da.

***SARIAK***:

| | | |
|---|---|---|
| ***EUSKERAZ*** | Lehenengo saria | 250€ eta aitorpen plaka |
| | Finalista | 150€ eta aitorpen plaka |
| | Accesit | Aitorpen plaka |
| **GAZTELANIAZ** | Lehenengo saria | 250€ eta aitorpen plaka |
| | Finalista | 150€ eta aitorpen plaka |
| | Accesit | Aitorpen plaka |

erroxape bermeoko emakumeen elkartea

LABORAL kutxa

BERMEOKO UDALA

Bermeon,
2025eko urtarrilaren 2an

# Berdintasun Saila
# IKASTAROAK

## BIZIRAUPENERAKO BRIKOLAJEA



(matxura ohikoenak zure kabuz konpontzen ikasteko)
Metodologia oso praktikoa · pitzadurak hormetan · azulejuak · heldulekuak · zulagailua, karatzeko eta lixatzeko makina erabiltzea · euste-takoak · hodiak, mahukak eta abar konpontzea · bisagrak eta sukaldeko tiraderak doitzea · silikona aplikatzea · sukaldeko kopetea aldatzea · dutxa higienikoa jartzea (dutxako mahuka egokitzea) · kaxoi baten gidak aldatzea · xafla baten entxufea konpontzea · pertsianatako zintak konpontzea · sarrailak jartzea
18 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahal dabe (gaztelaniaz).
TREBATZAILEA: Ana Oceja Uribe
IZENA EMOTEKO: berdintasuna@bermeo.eus / 688 63 84 49
Urtarrilaren 22tik martxoaren 5era arte, eguaztenero
18:00-20:00
Gizarte eta Kultura Etxean

## PERREO FEMINISTA




"Ezin bada dantzatu ez da gure iraultza"
Tailerraren helburua espazio seguru bat sortzea da, non twerk edo regueton bezalako dantzen potenziala esperimentatu ahal izango dogun, boteretsuago sentitzeko tresna lez. Feminidadeari eta sexualidadeari buruzko esanahien eraikuntzaren inguruko hausnarketa sustatuko dogu. Arau hegemonikoak eta patriarkalak urratu, lotutako estigma sozialak apurtu eta emakumeen gorputza eta plazera politikoki berreskuratzeko aldarrikapena egingo dogu horretarako.
18 urtetik gorako emakumeek parte hartu ahal dabe (euskeraz).
TREBATZAILEA: Ross dantza eskola
IZENA EMOTEKO: berdintasuna@bermeo.eus / 688 63 84 49
Urtarrilaren 25a, otsailaren 22a eta martxoaren 29a (hileko azken zapatuak)
11:00-12:30
Gizarte eta Kultura Etxean

# GIZ

**BERMESEX SEXU-AHOLKULARITZA ZERBITZUA:**
sexualidadeari buruzko edozein zalantza edo zeozer partekatzeko gogoa badaukazu, deitu, idatzi edo hurbildu. Doako zerbitzua eta isilpekoa.
· Datak: urtarrilak 3, 17 eta 31 (barikuak)
· Ordutegia: 16:30-18:00
· Non: Kultur Etxean, 2.1 batzar gelan
· 644898661/bermesex@bermeo.eus
· Nori zuzenduta: gazteak, gurasoak, hezitzaileak, irakasleak, begiraleak.

**ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA:**
familientzako informazino, aholkularitza eta orientazino zerbitzua da. Doakoa eta isilpekoa
· Noiz: astero: martitzen, eguazten eta eguenetan
· Ordutegia: 08:30-14:30
· Non: Kultur Etxean, 1. solairuan, gazte ekimenak gelan
· 675025018/bermeoprebentzioa@etorkintza.org

# KZ GUNEA

## AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Urtarrilaren 13tik 14ra. 11:00-13:00.
**“Google Argazkiak. Antolatu hodeian zure argazki guztiak”** (euskeraz). 4 ordu.
Urtarrilaren 9tik 10era: 11:00-13:00.
**“Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu”** (euskeraz). 4 ordu.
Urtarrilaren 7tik 8ra. 11:00-13:00.
**“Google Drive. Bildu eta partekatu zure artxiboak”** (euskeraz). 4 ordu.
Urtarrilaren 15ean. 11:00-13:00.
“Google Calendar. Zure denboraren kudeaketa hobetu” (euskeraz). 2 ordu.

## IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Urtarrilaren 9an: 09:00-11:00
Urtarrilaren 14an: 14:00-16:00/16:00-18:00

Zubiaur tar Kepa 26-28
1.solairuan (udal azokan)
Tel.: 944033325
www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net

# BEHARGINTZA

## NegoziON

Enpresa transmisinorako programa:  Bizkaiko Foru Aldundiko Demaren eskutik Bermeo, Mudaka eta Sukarrietako Behargintzaren lankidetzagaz, urtarrilaren 29an, 15:30etik 16:30era programaren nondik norakoak azaltzeko jardunaldia antolatuko da, Behargintzako formazino-gelan.

Programa azaltzen dauan web orrirako esteka:
https://www.negozion.eus/eus/negozion.php




## 3R Programa, Tokiko Enplegua 2024

Lan bila zabilz? Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz, Bermeoaldeko Behargintzak eskaintzen dauan 3R Programa lagungarri izango dozu!

Programak hiru ardatz daukaz zure enplegagarritasuna hobetzeko: lan-orientazinoa, lan-aktibazinoa eta lan-bitartekaritza.

Ez izan dudarik eta hartu hitzordua, astelehenetik barikura bitartean, 09:00etatik 14:00etara:
94 617 91 88
amurquidi@bermeo.eus

# Euskera Saila

## Nagusien Antzerki tailerra




Urtarrilaren 8, 15, 22 eta 29an.
Gizarte eta Kultura Etxean, 19:30ean.



# ERAKUSKETAK

## ARRANTZALEEN MUSEOAN

### “Portu Zaharra”

Museoko ordutegia:
Martitzenetik zapatura: 10:00 – 16:00
Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30
Astelehenetan itxita.

Portuaren eta bertako jendearen bilakaera kameren ikuspuntutik, toki guztietako argazkilariek erretratatu dabe Bermeoko portua, 1877tik gaur egunera arte, eta gaur egun, barriro be, Bermeoko bizi erdigune bihurtu da.

“Portu Zaharra” erakusketak Iñaki Markaidaren bilketa, hobekuntza digitala eta lanak biltzen dauz Bermeo eta bertoko biztanleak bere azken 150 urteko historian.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa: arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus / www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa

---

Berhaz bulegoan

## ZURE ARTELANEN ERAKUSKETA

egin gura dozu?

Argazkiak, pintura akrilikoa, olio-pintura edo akuarelaz egindako margolanak.

Bulegoan zein 010 telefonoan informatuko zaitugu. Animatu!

# ZINEA

**NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN**

Astero filmen informazinoa udalaren webgunean, Bermeo zabaltzen APPean eta sare sozialetan zabalduko da.
Sarrerak: salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

**Ordutegia:**

NAGUSIEN FILMAK
Zapatuetan eta domeketan: 19:30ean
Astelehenean (ikuslearen eguna):
19:00etan eta 21:30ean

UMEENTZAKO FILMAK
Zapatuetan eta domeketan: 17:00etan

## NAGUSIENTZAKO FILMAK

- **BETTER MAN**
- **SING SING**
- **ITOIZ, SUMMER SESSIONS**

## UMEENTZAKO FILMAK

- **SONIC 3 LA PELICULA**
- **KLARA ETA HAZI MAGIKOEN MISTERIOA**
- **EL JUICIO DEL PERRO**
- **FLOW, UN MUNDO QUE SALVAR**







'Miñan' Artedrama antzerki taldea

# Otsailean...

- Demiku auzoko jaiak
- 'Elara' umeentzako antzerkia
- Santa Ageda
- 'Miñan' Artedrama antzerki taldea


***Jarri hemen zure publizidadea***
Prezioa: 250 €

**94 617 91 57**
**kultura@bermeo.eus**


www.bermeo.eus

Bizkaia
*foru aldundia*
*diputación foral*

Lege-Gordailua: *BI-3421-09* · Argitaratzailea: *Bermeoko Udala, Kultura eta Hezkuntza Saila*